



**BIZITEGI ERAIKINA
B MAILA****SALAMANCA PASEALEKUA 7****Egilea eta data: Jose Majo y Xibert, 1895.****Deskribapena**

Neogotiko katalanaren eraginak dituen eraikina, fatxadako elementu azpimarragarrienetako batean ikus daitekeen bezala. Izan ere, modiloien gainean luzatzen den erlaitza agertzen da almenadun batean amaituz. Honen elementu nagusia kantoiko alakan kokatua dago. Harlanduzko fatxadan ere azpaduren moldurak eta ornamentazioa, eta begiratokien aurrealdea nabarmetzen dira. Hornidura ugari dituen eta kanpoko fatxadaren garrantzi berarekin landuta dagoen patio oktagonalek abiatuz, beste alderdi garrantzitsua da oin bakoitza bi etxebizitzatan zatituta dagoela. Patio hori etxearen espazio garrantzitsua da, eta ataritik sartu ondoren bertan aurkituko dugu eskaileraren hasiera. Hasieran erdisotoa, bastardea eta hiru oin bazituen ere, 1913an beste oin bateko jasodura egin zuten Lucas Alday arkitektoaren eskutik. Handitze lan horretan eraikinaren eredua jarraitu zuten, baita goialdeko errematean ere.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua eta goialdeko errematea.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: atariak, eskailerak eta patio oktagonalak jatorrizko elementuak mantentzen dituzte, aldatu gabe.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, aurreko aurreikuspenen aplikazioaren emaitzazkoen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dituztenak barne harturik.